

**PUNTO DE VISTA – Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko
Jaialdiaren ZUZENDARITZA ARTISTIKORAKO DEIALDIA**

**1. PUNTO DE VISTA – Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko
Jaialdia**

Punto de Vista - Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdia topalekua izaten da urtero zinema dokumentaleko joera berrientzat, eta sorreratik beretik (2005. urtean) Jean Vigoren konpromiso etiko eta zinematografikoa erreferentziazat hartu du, zinemagile frantziarraren "ikuspuntu dokumentatua" aldeztzen duelarik, zinema dokumentala ustez objektiboa eta neutroa den zinema egiteko eremua dela uste dutenen aurka.

Punto de Vista, Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdia topagunea da, esan bezala, maila desberdinetan. Lehenik, ikusle, zinemagile eta teorikoak elkartzen ditu dokumentalaren eta ez-fikzioaren adierazpen heterodoxo eta mugako guztien inguruan. Bigarren, espazioaren eta denboraren topagunea da. Punto de Vistak iritsi nahi luke, urtez urte, mundu osoko zinema dokumentala bateratzeko lekua izatera. Baina, horrekin batera, dokumentalaren iraganaren eta etorkizunaren arteko elkarriketa plaza ere izan nahiko luke. Ez-fikziozko zinemaren askotariko tradizioek proposamen arriskutsu eta berritzaileenekin topo egingen duten tokia.

Jaialdiaren baitan badaude sail desberdinak. Sail ofiziala, lehiaketa dena, eta informaziozko zenbait sail. Argibide gehiago nahi izanez gero: www.puntodevistafestival.com

Urteroko edizioaz gain, Nafarroako Filmotekan "Foco Punto de Vista" zikloa antolatzen du jaialdiak (saio bat hilero).

Punto de Vista Jaialdia martxoan izaten da, Kultura Zuzendaritza Nagusiak Baluarte Fundazioarekin lankidetzan antolaturik.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak Baluarte Fundazioaren esku utzi du Punto de Vista - Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiaren zuzendaritza artistikoa betetzeko deialdia abian jartzeko lana.

2. DEIALDIA

Abian jartzen da Punto de Vista - Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiaren 2018ko ediziorako zuzendaritza artistikorako proiektuak aurkezteko deialdi ireki hau.

Abian jarri da Antzerki Jaialdiaren 2017ko ediziorako zuzendaritza artistikorako proiektuak aurkezteko deialdi ireki hau.

2.1. HELBURUAK

Jaialdiaren funtsezko helburuetako bat da beren obraren bidez bilaketarako proposamen ausartak egiten dituzten sortzaileak hartzea; beren langintza ulertzen dutenak testuinguru historiko eta sozial jakin batzuetan gizakia eta gizakiaren bizimodua ezagutzeko prozesu gisara; errealitateari buruz gogoeta egiten duten egileak beren sorkuntzen bidez eta beren proposamen formalen subjektu direnekin eta beren lanen hartzaileekin ezartzen duten harreman etikoaren bidez. Jaialdi honek ibilbide bateko geltokia izan nahi du errealitatearen pertzepzioa eta hura adierazteko eta hartaz pentsatzeko moduak ikus-entzunezko baliabideen bitartez zabaltzen dituzten zinemagileentzat. Jaialdia, finean, gogoeta dakarten eta errealitatea ulertzeko ahalegina egiten duten film dokumental guztiak hartzeko prest dago.

Bere sail guztien bitartez, baina bereziki bere nazioarteko lehiaketaren bitartez, Punto de Vistak ezagutzera emanen dituen filmetan ez-fikzioa adierazpide zinez independentea da, eta sozialki beharrezkoa.

2.2. KOORDINAZIOA, EKOIZPENA ETA KUDEAKETA

Kultura Zuzendaritza Nagusiak (KZN) eta Baluarte Fundazioak (BF) Jaialdia koordinatu, ekoitzi eta kudeatuko dute eta Jaialdiaren zuzendaritza orokorraz arduratuko dira. Entitate horien eginkizunen artean dago Jaialdiaren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak zuzentzea. Bi entitate horiek izendatutako koordinatzaileak izanen dira hautatuko den zuzendaritza artistikoaren solaskideak, eta horretan Jarraipen Batzordearen laguntza izanen dute (Jarraipen Batzorde hori ikus-entzunezko arteen sektoreko profesionalak eta KZNko eta BFko kideek osatuko dute; haren eginkizunak 2.4. puntuan zehaztuko dira).

Gainera, Jaialdiak badu Hautapen Batzorde bat, nazioarteko mailako zinema dokumentalean aditu direnek osatua; haien artean zuzendari artistikoa egonen da, eta bera izanen da Jaialdiaren Sail Ofizialean parte hartuko duten filmen hautapenaren arduraduna.

2.3. ZUZENDARITZA ARTISTIKOAREN EGINKIZUNAK

- Proiektu bat aurkeztea, Jaialdiaren edukien definizioa emanez, sail guztien edukia espresuki zehaztuta. Proiektuan berean sartu beharko da egitaraua modu egokian gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia.
- Beharrezkoak diren lehen kudeaketak egitea Jaialdiaren programazio lerroak abian jartzeko.
- Jaialdiaren programazioa, ezarritako egutegi-ordutegien barnean eta jasangarritasun irizpideetan oinarrituta esleitzen zaion aurrekontuarekin. Proiektuak, artistak eta konpainiak proposatzea. Haiekin harremanetan jartzea. Konpainia, artista eta gonbidatutako beste profesional batzuen lana koordinatzea.
- Jaialdia aurkezteko testu bat idaztea, baita sail bakoitza aurkeztekoa ere, katalogoan eta Jaialdiaren webgunean argitaratzeko.
- Jaialdiaren amaiera ekitaldiko galaren gidoia idaztea, Jaialdiaren koordinatzaileekin batera.

- Jaialdiaren Hautapen Batzordea osatuko duten pertsonak hautatzea, zuzendari artistikoa Batzordeko kide soila izanen delarik.
- Jaialdiko Epaimahai Ofiziala osatuko duten pertsonak hautatzea.
- X Films proiektuan esku hartuko duten zinemagileak eta proiektu horretako Hautapen Batzordea osatuko duten pertsonak hautatzea.
- Komunikazio plana diseinatzea, koordinatzaileekin lankidetzan.
- Ordezkaritza lanak: Kultura Zuzendaritza Nagusiak erabakitzen duen sustapen eta hedapen ekitaldietan parte hartzea.
- Zinemaldietara joatea, koordinatzaileekin batera adostutako ibilbide-orriari jarraikiz, Jaialdiko egitarauan sar daitezkeen filmak bilatzeko asmoz.

2.4. JARRAIPEN BATZORDEA

Batzordea eratu da kide hauekin: Nafarroako Gobernuko Kulturako zuzendari nagusia, NICDOko zuzendari kudeatzailea, Kultura Ekintzako Zerbitzuko zuzendaria, Nafarroako Kulturaren Kontseiluko bi kide (zinemako batzordea), eta ikus-entzunezkoen sektoreko entzute handiko bi pertsona.

Batzordearen eginkizunak honako hauek izanen dira:

-Zuzendaritza artistikoa aukeratzea

-Programazioa behin betiko onestea

-Zuzendaritza artistikoak berarekin dakartzan lanetan laguntzea eta haien jarraipena egitea

-Memoriaren urteko ebaluazioa egitea

2.5. HAUTAGAIK

Pertsona fisikoak izan daitezke hautagai.

Hautagaiek beharkizun hauek bete beharko dituzte:

- Unibertsitateko goi mailako titulazioa izatea eta zinema jaialdiaren helburuak beteko direla bermatuko duten ibilbidea eta esperientzia frogatzea.
- Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estaturen batekoa.
- Hautatutako pertsona autonomoen erregistroan alta emanda egonen da jarduera hasten den egunean eta, gainera, beharrezko dokumentazioa ekarri beharko du.
- Hautagaiak balizko interes-gatazkaren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du eta esparru berean beste jarduera batzuk egiteko baimena eskatu duela adierazi beharko dio batzordeari.
- Hiru urteko gutxieneko esperientzia antolakunde kultural publiko edo pribatuetan, bereziki zinemaren esparrukoetan.

Proiektuak gaztelaniaz zein euskaraz idatzita aurkez daitezke.

Ingelesa, euskara eta Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuk ezagutzea baloratuko da.

2.6. HAUTAKETA

Jarraipen Batzordeak baloratuko ditu proiektuak.

Proiektuak ebaluatzeko, kontuan izanen dira: programazio artistikoaren planteamendua, bitartekaritza programak, ikusleak sortzeari arreta egitea, jardunbide egokiekin eta kudeaketako gardentasunarekin bat datozen kudeaketa proposamenak, eta aurrekontu aldetiko bideragarritasuna.

2.7. ESKABIDEAK

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, oinarri hauek Baluarte Fundazioaren eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webguneetan jendaurrean jartzen direnetik hasita; eta amaituko da 2017ko otsailaren 22an.

Interesdunek dokumentazioa posta ziurtatu bidez igorri beharko dute Baluarte Fundaziora (Baluarte plaza, z.g. - 31002 Iruña). Dokumentazioa gutun-azal baten barnean sartuko da eta haren gainean "Punto de Vista - Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdiaren zuzendaritza artistikorako

deialdia" idatziko da. Dokumentazioa bi gutun-azaletan banatuko da. 1. gutun-azalean parte-hartzailearen datu hauek bilduko dituen dossier bat sartuko da:

1. Motibazio gutuna
2. Izen-deiturak
3. NANA
4. Jaioteguna
5. Helbidea
6. Telefonoa
7. Helbide elektronikoa
8. Curriculum laburra, iruzkindua
9. Unibertsitateko titulua

2. gutun-azalean:

1. Proposamenaren marko kontzeptualaren azalpen trinkoa.
2. Proiektuaren aurkezpena. Programazio ildoen proposamena.
3. Egokitzen jotzen den gainerako dokumentazioa.

Batzordeak hautagaiei dei egin diezaieke beren proiektuak aurkez ditzaten.

Hautapen prozesuari buruzko kontsultak posta elektronikoz igor daitezke

helbide honetara: pdv-selec@baluarte.com

2.8. LAGUNTZA KONTRATUA

Baluarte Fundazioak hautatutako pertsonarekin 15.000 euroko laguntza kontratua izenpetuko du. Kontzeptua, hauxe: Jaialdiaren 2018ko ekitaldiko zuzendaritza artistikorako ordainsaria.

Baluarte Fundazioak gehienez ere 2.000 euroko berariazko diru-kopuru bat gaituko du, lana egiteko behar-beharrezkoak diren bidaia-gastuetarako.

Kontratua betetzeko epea sinatzen den egunean hasiko da eta amaituko da 2018ko maiatzaren 31an.

Kontratuaren ordainketa honela egingen da: zenbateko bereko hiru ordainketa: lehena, kontratua sinatzen denean; bigarrena, Jaialdia hasten denean; eta

hirugarrena, urteko memoria aurkeztu ondoren, eta aldez aurretik behar den faktura aurkeztuta.

2.9. JARDUNBIDE EGOKIAK ETA KODE ETIKOA

Erakunde kultural publikoen demokratizazioan eta kudeaketako konpromiso etikoan sakontzeko helburuari begira, Jaialdiaren zuzendaritza artistikoa arduratuko da dokumentu honen eranskinean berariaz adierazten diren gomendioak eta konpromisoak benetan bete daitezen.

Halaber, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen arabera, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak eskubidea dute beren datu pertsonaletara sartzeko, eta haiek zuzentzeko nahiz ezerezteko; horretarako, idazki bat bidali beharko dute Baluarte Fundaziora.

ERANSKINA

Konpromisoak jardunbide egokiei dagokienez:

1. Jaialdia nafar gizartean garatu eta errotu dadin bultzatzea.
2. Jaialdiko jarduerak balio publikoa izan dezaten edo gizartera itzul daitezen ahalbideratzea, lurraldearekin ongi uztartutako ekintza kulturala errazteko.
3. Zuzendaritzaren autonomia defendatzea esparru artistikotik kanpoko injerentzien aurrean.
4. Esparru guztietan parekotasuna ezartzeko konpromisoa hartzea.
5. Lan arloko oinarritzko eskubide eta betebeharrak aplikatzea, kontratazio jasangarriko eredu bati jarraikiz.

Jaialdiaren zuzendaritza artistikoak proiektua garatuko du honako gomendio eta printzipio hauen arabera:

1. Jaialdiaren zuzendaritzaren lerro estrategikoak jendaurrean jartzea.
2. Kudeaketa administratiboa koherentea izan dadin laguntzea.
3. Funts publikoetan beharrezkoak ez diren gastuak ez egiteko konpromisoa aplikatzea.
4. Inplikaturako eragileekin eta lanbide sektorekoekin elkarlanean aritzea.

Jaialdiaren aurrekontua: Guztira, 225.650 euro.